

marante

CULTURA OCIO COMUNICACIÓN

Irakurlearengan barrea eragingo duen "txakur inuzentea"

Bernardo Atxagak 'Xola eta lapurra' plazaratu du, bildumako bosgarren liburua, umorez betetakoa

✎ Marta Esnaola
✎ Ruben Plaza

DONOSTIA — Bernardo Atxaga oporretara joan zen batean eta Xola bere txakurra etxean bakarrik utzi zuen. Atxagaren anaia animalia zer moduz zegoen ikustera joan zenean manta baten azpian gordeta aurkitu zuen. "Anaiak istorioa kontatu zidanean, txakurrak zer esango lukeen pentsatu nuen, eta horrela sortu zen Xolaren abenturak kontatzeko ideia", azaldu zuen atzo Atxagak. Hala ere, lehenengo lana izango zela uste zuena bosgarren liburua izan da azkenean, orain kalera-itu baitu Erein argitaletxearekin *Xola eta lapurra*, bildumako bosgarren alea, lehenengoa *Xolak badu lehoien berri* (1995) izan zelarik.


Idazle asteasuarrak oso ondo eza- gutzen du jada duela hogeitau urte sor- tu zuen pertsonaia. "Xola, batez ere, oso inuzentea da, eta ez da ohartzen bera nolakoa den", azpimarratu zuen Atxagak. Bere ustetan, txakurrak pentsatzen du erraz egingo duela nahi duen guztia, baina talka egiten du errealitatearekin. Adibidez, isto- rio batean lehoia bihurtuko dela uste du, eta beste batean, basurdeak erraz harrapatuko dituela pentsatzen du, ardiak direla uste baitu. "Egia esan, ez du inoiz ikasten, behin eta berriz akats berberak egiten ditu eta inu- zentetia izaten jarraitzen du", gai- neratu zuen Atxagak. Oraingoan, Xolak lapurrei buruzko istorioak en- tzungo ditu, eta beldurra eta jakin- mina edukiko ditu aldi berean.

UMORE ZURIA Haurrak liburua gus- tura irakurtzeko erabiltzen duen erreminta bat umorea da, "zuri- zuria, kiwoek erabiltzen dutena bezalakoa, pixka bat burlatia". "Hasieratik, nire eragin zuzenak lotu- ta egon dira umorearekin, adibidez, Charles Dickens *Pickwick kluba- ren paper postu*moak liburua oso

gustuko dut", azaldu zuen. Bere uste- tan, garrantzia handia du, eta gaine- ra, haurrekin erabiltzen duen umo- rea poesiatik nahiko gertu dagoela adierazi zuen. "Gaur egun diskurtso zurrun asko dago, eta umoreak dis- tantzia pixka bat jartzen laguntzen digu", gehitu zuen. Xolaren istorioek ideia horri jarraitzen diote eta gaine- ra, *antiautoritario* izateko nahiari ere bai. Hala ere, umore popularra bai- no "finduagoa" da bilduma honeta- koa. Atxagak Mikel Valverde ilustra- tzailearen lana ere goraipatu zuen, umorearen inguruan garrantzia izan baitu. "Artista berezia da, ez da ohil- koa, bere marrazkietan umorea bai- tu", adierazi zuen, eta gainera, "txa- kur hau nahastezina" izatea lortu duela gehitu zuen.

Bestalde, umorea hor dagoela anekdota batekin justifikatu zuen. Izan ere, urtarrilaren 19an urteko egunik tristeena da irlandan eta *The Irish Times* egunkariak Atxagaren Xolaren abenturak liburua —bere istorioen bilduma bat— gomendatu zuen jendea animatzeko eta triste ez egoteko. "Behin eduki nuen tenta- zioa dibertigarria ez den zerbait egi- teko, baina azkenean ez egitea era- baki nuen", kontatu zuen, umorea oso garrantzitsua baita bere iritziz.

HAURREI IRISTEKO AHALEGINA Ingele- sez argitaratutako liburuak arrakas- ta handia izan zuen eta aurreko astean Atxaga Londonen izan zen itzulitako haur eta gazte literatura- ren Marsch saria jasotzen. "Beti jakin izan dut ilustrazioak eta elkarriket- tak garrantzitsuak direla haur litera- turan, baina oraingo honetan beste zera itxi dut: aktorearen beharra", azpimarratu zuen idazle gipuzkoa- rrak. "Londonen, aktore batek nire pasarte batzuk irakurri zituen, eta haurrak hipnotizaturik begiratzen zioten", azaldu zuen. Bere iritziz, Euskal Herrian ere teknika hori era- biltzea ere ideia ona izango litzateke.



Bernardo Atxaga, atzo, Donostiako Alde Zaharrean.

"Gaur egun, diskurtso zurrun asko dago, eta umoreak distantzia jartzen laguntzen du"

BERNARDO ATXAGA
Idazlea

"Ahalegin hori egin beharko litzateke saltzeko", nabarmendu zuen, etorkizunera begira. "Egin dudana interesatzen zait, baina are gehiago egingo dudana", esan zuen.

Atxagak ez daki noiz idatziko duen Xolaren hurrengo istorioa, baina jada badaki zein gai erabiliko duen. *Xola eta pintura modernoa* izena eramango du, eta museoen ingu- rukoa izango da. Txakur protagonis- tak *Gioconda* ikusi nahiko du Lou- vren, baina hainbeste jenderekin oso zaila egingo zaio. "Gaur egun bizi- tza modernoa dagoen egoerak harritzen dit; duela urte eta erdi Pari- sen izan nintzen, eta museo guztiak bete beteak zeuden, ezin izan nuen ezer ikusi, eta hori islatuko dut hurrengo abenturan", esan zuen. ●